

ERDI-AROKO ERRI EUSKALDUNEN IDAZKERA (V)

Gaur, 1332'ko Otsaillaren 8'ko larruki bat aztertu nai neuzte. Idazti luzea da. Labairu'ren «Suplemento»an 23 orrialde betetzen ditu: 100'garrenetik 124'garrenera. Bere gaia: Gazteiz'ko Uriak Araba'ko Kofradiarekin, 45 errixken nagusitzari-buruz izandako auzia.

Orduan oitura zan lez, izkera aundikiarekin asten zaigu, Gaztela'ko XI Abontsa'ren izenean, larruki idatziaz zuan «Juan Martinez de Leyba, Camarero mayor de Castilla»:

«En nombre de Dios padre é fijo é espíritu Santo que son tres personas é un Dios verdadero que vive é regna por siempre yamas é de la bienaventurada Virgen gloriosa santa maria su madre á quien nos tenemos por Señora é por abogada en todos nuestros fechos é á honra é á servicio de todos los Santos de la Corte Celestial...»

Larruki osoa dago gazteleraz idatzia, eta, bertan, ankaz gora dabil euskerazko izenen ortografia ez eze, gaztelerazkoena ere.

Eztabaidan zeuden berrogeita bost «Aldeas» edo nekazari-erri aiek auetxek ziran: (Larrukian ematen dizkigun kirian ipiñiko ditut)

SUBIJANA	HURIARTE	ILARRAZA	MIÑANO MENOR
ZUMELZU	ARGANDOÑA	ASCARZA	RETANA
ARMENTIA	SANT ROMAN	ARCAYA	ARROYAVE
GOMECHA	LUBIANO	SARRICURRI	AMARITA
BERROSTEGUIETA	OREITIA	OTAZU	GAMARRA MAYOR
MEANA	HULIBARRI	HELORRIAGA	GAMARRA MENOR
MONASTERIOGUREN	DOYPA	ARCAUTE	BETOLAZA
GAMIZ	MATAUCU	ARANGUIZ	ZUAZU
BOLIBAR	BETRIQUIZ	HULIVARRI	CHRISPIJANA
ULIBARRI de los OLLEROS	ZERIO	ARACA	GOVEYU
HABERASTURI	JUNGUITU	MIÑANO MAYOR	LERMANDA
	ZURBANO		ABUCHUCU

Ta, ara aurreneko gauza bitxia: berrogeitabost zirala, -dio larrukiak-, auzipeko errixkak, «quarenta é cinco Aldeas que son en Alava nombradamente», eta berealaxe, «nombrementu» ori egiten duanean, larogiteisei izendatzen ditu! Zazpi aldiz esaten du gaiñera errixka aiek berrogeitabost zirala!, baiña berrogetasei aipatzen ditu. Ez dagoala, Euskalerriko edestiari dagokionez beintzat, aintziñako dokumentu idatzietan uste osoa ipintzerik!

Aztertu ditzegun orain, banaka, larrukiak ematen dizkigun 46 errixka oien izenak:

ABUCHUCU, gaurko Abetxuko da. «ABE», garai-artan jaiotzen dan zuztar gorriko belar txar bat da. Ortik omen dator, Kerexeta'ren ustez, Araba'ko errixka onen izena. Baiña «ABE», bizkaiera zarrean «zugaitz» bai zan, eta Araba'n Bizka'i'ko euskera itzegiten bait zan, ortik ere baletorke erri-izen ori. Nork jakin! Ez bait da etimologiarena baiño lur labaiñagorik.

Donemillan'go burnibarren larrukian ABBOGOKO esaten zaio oraingo Abetxuko oneri. Itz ori AVOGOKO irakurri zuan Luciano Serra'nok «V»z eta «V» batekin. Orrela joaten dira, euskaldun ez diranen mingain eta lumetan euskal-izanak aldatzen. Burnibarren larrukian agertzen da ABULANKA bat ere. Ez da gure Abetxuko.

AMARITA eta ARACA edestirik gabeko erriak dira. Azkenekoa, aspaldi ezereztua; izan bereko mendiaren maldan ze-

goan.

ARANGUIZ. 1025'ko urtean idatzi zan burnibarren larrukian, «U»rik gabe dator: ARANGIZ. Beste larruki batek «Y»z idatzia ematen digu izen ori: ARANGOYZ. Ta, ona emen gauza pinpiriña: Aranguiz, garai aietan BADAYOZ zeritzan «ermandade» edo erri-taldekoa zan! Badayoz! Ez du Extremadura'k Badajož'ekin zer ikusirik. Euskal-izena da. Baditu euskerak mundu guztian zear, bere izenen antzeko izenak ugari. Izkuntza guztietakoak. Orregaitik, bi izkuntzek itz berdiñak edo antzekoak izateak ez du esan nai bi izkuntz oiek guraso-umeak, senideak edo aideak diranik. BADAYOZ aũ, nik dakidanez, 1462'ko idatzi baten aipatzen da aurreneko aldiz, eta BADAJOS bezela aipatu ere. Landazuri'k 1463'ko idaztian BADAJOZ irakurri zuan. Araba'ko «Ordenantzak» ots, Araudiak, BADAYOZ idatzi zuan 1742'ean.

ARCAUTE, ARGANDOÑA, ARCAYA, ez dira azterketa bereizirik mereziduten erriak. Burnibarren larrukiak ARGENDONIA eta ARCAHIA ematen dizkigu. «A» ta «I»ren arteko «H» orrek badu BIZKAHIA'ren «H»arekin zer ikusirik. Bietan «X» bat edo «Y» bat adierazteko ipiñia izan zan, neure us-tez: BIZKAIXA eta ARKAIXA edo BIZKAIYA eta ARKAIYA idatzi naican ipiñia izan zan. Dana dala, orduango idazkeraren axolagabekeria erakusten digu. Izen bera batzuetan «H» eta bestean «H»rik gabe idazten zala: Arcaia edo Arcahia; Bizkaia edo Bizkahia. Eta beiñere ez BIZKAHI, izen ori azkeneko «A» atzizkirik gabe agertzen danean. Onetxek oiñ-ematen digu «H» ori, itz auetan «Y» edo «X» bat adierazteko idatzia izan zala pentsatzeko.

ARROYABE. Era berdiñean idatzia agertzen da 1258'an ere. Burnibarran, ARROIAHA bat dakusgu. Balaieke erri bera ez izatea, baiña izena beintzat bat bera da. Ortaz «H» ori «B» dala dirudi, «BA» eta «BE» atzizki bat bait dira. Beraz Arroyabe'k edo Arroyaba'k, ARROI-PE esan nai du. ARROI zer dan? Baztan-aldeko euskeran «arrobi», erderaz «cantera». Baiña gure Arroibe Araba'n dago, eta Araba'n ez da sekulan Naparroa'ko izketarik

egin. Bizkai'koa egin da beti. Bizkaieraz, berriz, «arro» «amildegi» da, erderaz «barranco». Ori ala dalarik, ARROIABE..., «Amildegipe» ote da? Nork jakin! Arroiabe erria gaiñera, azpian ez baiña «gaiñean» dago. Gazteiz'tik Bergara-bideko ertzean, muiño-txo baten gaiñean. Ala ere, -entzun etimologi-zaleak!-, orrek ez luke geiegiko garrantzirik izango, maiz, erriek aldatu bait dute tokiz. Izena eman zitzaientean, bean zeuden, eta gero, guduen ondorioz, babes obearen billa, edo nekazaritzako lur geiago nai zalako, ala ugaldeetatik iges egiteko, gora aldatu ziran.

Baiñan... ARROIAHA'ren «H» ori ez ote da «G» adierazteko? Ortarako ere maiz erabiltzen zuten-ba lumalari aiek «H»a! Arroiaha, uste ontaz, ARROIAGA izango genduke: Gazteleraz, «Lugar de Barrancos», eta izen ori ederki letorkioke gaurko Arroiabe'ri.

ARMENDIA. Len ere mintzatu gera erri ontaz. Burnibarren larrukian ARMENDIHI idatzi zuten. Or ere, zalantzarik gabe, «H» a «Y» edo «X» adierazteko dago: ARMENDIXA, edo ARMENDIYA. Erri au Araba'ko Zelaiekoa da; Gazteitz'en alboan dagoana; gotzai-erri izana. Trebiño'n ere bada gaur ARMENTIA esaten zaion beste erri bat. Baiña erri ori, larruki zarretan ARMENDEGA lez agertzen da idatzia, ala, amaikagarren mendean 1083'ko dokumentu batean.

BERROSTEGIETA. Burnibarren larrukian «Z»z dago: BERROZTEGUIETA. Eta baita 1106'garren urteko batean ere: «...comparavi solare in villa que (sic) dicitur Berroztegieta in uno caballo (sic) et uno mulo»: «soro bat erosi nuan BERROZTEGIETA deritzan urixkan zaldi baten eta mando baten truke». 1266 beste larruki batek BERROSTIETA ipiñi zuan. Berroste-gieta'ren laburpen bat dala dirudi.

BETOLAZA; BETRIQUIZ. Aurrenekoaren izena BETELLOGAHA idatzi zuan Burnibarren idazleak. Eta «H» orrekin zer esan nai zuan asmatzen saiatzeko lana ipiñi zigun. Ez ote da lumaren utsegite bat, «lapsus calami»? «N» edo «Ñ» idazten asita, ez ote zuan uste-gabean «H» idatzi? Oker ez ba'nago, BETELO-

GANÁ edo BETELOGAÑA idatzi nai izan zигun arek.

BETRIQUIZ berriz, aspaldi ezereztutako erria da. Lentoago aipatu dugun Arcaute'ren alboan zegoan. Burnibarren larrukian ere agertzen da. PETRIQUIN esaten dio erri oni «Enci. Genl. Ilus. del País Vasco»k, eta, bere etimologizat, «betri híz» ematen digu. Ez dakit nondik sortu duan itz ori eta nola atera duan etimologi ori. Uts bat ote da? Bai bait ditu, geiago ere, orrelako utsak.

BOLIBAR. Araba'koa da. Borgoña'ko Errege San Sejsmund'en gorpuzkiñak bertako elizan gordetzen ditualako, Araba'n peregrinazio-erri ospetsua izana. Bertan dago, illarri bateko iaiztiak dioskunez, obiratua Velegia'ko gotzaia ere.

Era ezberdiñean agertzen zaigu erri arabar onen izena: BORINIBAR, Donemillan'go burnibarren larrukian; BOLINIBAR amaikagarren mende artan, 1087'an; BONIBAR Llorente edestilariak irakurri zuanez, urte artako beste larruki batean; BOLLIVAR, 1294'ean. Albelda'ko Kronikak aipatzen duan VELEGIA,- askok ala uste dute -, gaurko BOLIBAR au baldin ba'da..., a nolako aldakuntza egin duan erri onen izenak! Ibilli zaitezte arreta aundiz, etimologi-zale danok, zuen asmakizunetan!

Esana dugu beste nonbait, Bizkai'ko BOLIBAR, adjetibu edo izenondo lez MOLINAVARRENSIS, idatzi zuala lumalari zar batek, orrela Bolibar'en muiñean dagoan «BOLU» itza erderatuaz. Ori da gure erri-izenen aldakuntza askoren beste iturburu bat. Goraxeago mintzatu gera ARROIA'z. Ba, ARROIA ori, ARROYO biurtu zuten lumalari erdeldunek. Orrela, gaur egungo Errioxa'n eta Naparroa'ko Erribera'n, ARROYO eta Arroyo'ren antzeko beste toki-izen eta abizenak, oso-osoan euskaldunak dira.

CHISPIJANA. Ez du edestirik Gazteiz'tik bost kilometrora dagoan errixka onek. Bai ordea bere atzizkiak. Ainbeste erri-izenen bukaera dan ANA ori zer ote da? Gure aldi ontan, Caro Baroja'ren antzera euskerarik itzegiten ez duten etimologiariek, edo Koldo Mitxelena bezela euskaldun berriak diranak, modan

jarri dute, euskeraren izkutuak azaltzeko, latiña. Gaur latinistak dira etimologilari berriak. Jaun oientzat ANA atzizkia lateratik dator. Era berdiñean ANO. Laterazko ANUS eta ANA dira. Orrela KRISPIJANA, berez, CHISPINIANA izango litzake. Euskeraz KRISPO'RENA; Krisporen landa edo Krispo'ren etxea, ANTOÑANA, Anton'ena izango litzakean bezela.

Egia ote da? Ez ote dira beren buruak ain jakintsutzat agertzen dizkiguten etimologilari oiek ariñegi mintzatzen? Len, gure etimologilari erromantikoentzat, guztia euskera zan mundu guztiko toki-izenetan; orain, gure eta ain gure ez diran etimologilari razionalistentzat, guzia latera da Euskalerriko toki-izenetan. Ez ote dabiltz auek ere, aiek ibilli ziran bezela, amesgintza goxoan?

Yakintza edo zientzi gaitza dala etimologia!

GAMARRA. Bi Gamarra dira Alaba'n eta biak agertzen dira larruki ontan: MAYOR eta MENOR. Azkeneko oneri, GAMARRA GUTXIA ere esaten zaio, Gamarra Txikia'ren orde 1257'ko idazti batean. Ederki! «GUTXI» itza adjetibu edo izenondo lez erabilia! Orrela agertzen bait zaigu beste izan askotan ere IBARGUTXI itzean adibidez. Ibartutxi, Ibartxiki da.

GAMIZ itzari ez diot aldakuntzarik ezagutzen. Beti berdin idatzia ikusi izan dut.

GOMECHA. Burnibarren larrukian, GOMEGBA. Eta baita 1087'ko beste batean ere. 1257'an GOMECHA lez agertzen zaigu; GUMECHA, 1294'ean; eta GOMECHIA 1587'an. Idazkera oiei so-egiñaz, esan daitekela uste dut, Donemillan'go lumalariak amaikagarren mendean bi «GG» aiekin «CH», gure «TX», idatzi nai izan zuala. Laterazko idazle aientzat oso zailla bait zan «TX» soñu ori idatzi ematea.

GOVEYU. Amaikagarren mendean, GOVEIO, bi larruki ez berdiñetan. 1257'an GOBEO; 1294'ean GOBEYO; eta 1331'ean, GOBEYU. Orain, GOBEO estan zaio.

Aztertu ditzegun orain, larruki onek «H»z idatzita ematen

dizkigun itzak. Iru dira: HABERASTURI, HULIVARRI (HULIBARRI); eta HURIARTE.

HABERASTURI, «H»z idatzia agertzen zaigu burnibarren larrukian ere. ABE'z asten diran itzak «H»z idatzi bear ziralako? Ez, inondik ere! ABENGANDU, gaur-eguneko ABENDAÑO, «H»rik gabe ematen digu burnibarren larrukiak berak. Mende artan bertan, amaikagarrenean, 1051'ko dokumentu batek «H»rik gabe idazten du ABERANCANENSIS, «berangotar» esateko. ABULANCA ere, naiz bere «Abu» ori «abe»ren senide izan, «H»rik gabe dago burnibarren larrukian. Izen auen asieran aztertu dugun ABETXUKO ere «H»rik gabe izan da beti idatzia. Ortografi ziuurrik ez zan aldi artako txepelkeri bat besterik ez da, beraz, ABERASTURI'ren asierako «H» ori.

HULIBARRI. Ullibarri eta Uribarri bat baiño geiago dira Araba'n. Gure larruki onek, iru aipatzen dizkigu, ta irurak era ez berdiñean idatziak: Batean «B»z eta bestean «V»z: «HULIBARRI», eta bi lerro beerago, HULIVARRI «H»rik gabe batean: ULIBARRI, eta «H» ta guzti urrengo lerroan: «HULIBARRI». Ori, larruki bat ber-berean! Nai al duzu, orduango «H» aiek bature garrantzirik gabeko izkiak dirala aitortu aal izateko, argumentu sendoagorik? Ala ta guztiz, badira oraindik ere gaur, euskeran «H»a sartu nai digutenen artean, zorakeri ori egiteko, antziñako «H» doakabe ura arrazoitzat ipintzen dutenak.

Donemillan'go burnibarren larrukiak ere «H»z idazten du Hulibarri, baiña «H»rik gabe, ULLIBARRI, 1332'ko beste batek. Eta oiek danak baiño askoz dokumentu zaarragoak 952'garran urtean ULIBARRILIOR ematen digu.

LERMANDA. «LER», piñua da Sarasaitzu'ko eta Erronkari'ko euskeran. «Zan», obeto esateko; gaur ez bait du an inor euskerarik egiten. Baiña Lermenda ez dago Napparroa'n, Araba'n baizik, eta Araba'ko euskera Bizkai'koa zan. Zer ote genduan antziñako bizkaieran, «LER» ori? Lopez Mendizabal'ek, «Lermenda» gazteleraz «madroñal» dala diosku. Bai ote? Guk beintzat «madroñori» «gurbitxa» esaten diogu.

MEANA, itxuraz «Mena» itzetik dator, eta itz ori, gaztele-
raz, «mineral» da. Zer ote da azkeneko ANA zoriontsu ori? Esan
dugu, Caro Baroja'rentzat latīna dala. Mitxelena'k ontzat ematen
du («Apellidos Vascos», 45 or.) Caro'ren aburu ori, itz batzuetan,
ala ere, «ANO» euskerazko «atziski diminutivoa» edo tipitzeko
atzizkia izan daitekeala esanaz. ETXANO eta ELKANO «elka-
txo». «ELKA» zer dan jakiten egongo lirake lanak. Dana dala,
«ANO»ko «NO» edo «NO» ori batzuetan tipitzeko atzizkia dala
esatean arrazoi duala Mitxelena'k uste dut.

Baiña ez dut uste ANO eta ANA latīnaren atzizkiak dira-
nik. Askoz errezagoa eta legezkoagoa iruditzen zait euskeraren
izenjoku edo deklinabidearen atzizki dirala esatea; ANA atzizkia
batez ere; «jenitibu» edo anorena azaltzen duan» atzizkia. Ortaz,
«ANTONANA» «Antonia'rena» izango litzake. Beste batzuetan
baleike ANA eta ANO atzizki toki-adierazleak izatea: lokati-
buak.

Itz auekin amaitzen du Mitxelena'k atzizki auen azterketa
laburra: «Queda mucho que aclarar en cuanto a la etimología de
los nombres en -ana y -ano de origen latino». Ontan ere arrazoi
du Mitxelena'k. «Ofrecen orígenes diversos y difíciles de estu-
dio», dio berriz «Enc. Gel. Ilus. del P. V.»k. Eta egia dio.

Izen asko dira euskeraz MEA'z asten diranak: Meabe, Mea-
ca, Meano, Meana, Meaoz, Mearin, Meaurio, Meatza. Eta askoz
geiago ANA'z edo ANO'z amaitzen diranak. Mitxelena'k (l.c.)
Donemillan'go burnibarren larrukiak XI mendean ematen diz-
kigunak jasotzen ditu. Orra nola: Andiggana, Antezana, Arcilla-
na, Argillana, Audicana, Durana, Erdogana, Eurtipiana, Licinga-
na, Logrozana, Lopeggana, Maturana, Meiana, Mandoiana, Pa-
terniana, Suvillana, Urvillana, Villavizana; Guzkiano, Kerrianu,
Luviano, Mengano, Zeriano, Zurbano; Adanna y Erretanna, es-
tán escritos con doble n».

Eta berealaxe, gurentzat garrantzi-puxka bat baduan oar-
txo bat egiten digu, zerrendan eman dizkigun itz oiei-buruz:

«Es digno de señalarse la total ausencia de h en ellos, extra-

ña en un documento en que tanto abunda esta letra».

Bai Koldo. Arrigarria duk «H»en falta ori! Batez ere itz oien artean «H»z idatzirik egon bear zutela uste daitekean «AR», «ER» eta «UR» izkiez asten diran izenak bat baiño geiago badirala oartzen ba'gera: (ERDOGANA, ERRETANA, URVILLANA, ARCILLANA, ARGILLANA). Eta, batez ere, orain-txe azalduko dedan lez Donemillango burnibarren larrukian bertan izki oiekin asten diran izenak «H»z idazten dirala maiz, oroitu nai ba'dugu. Ikus:

1.^a- «Uri» asten diranak zenbatzeke, HURAVAGIN, HURHAGA, HURRIETA, (JURRIETA, 1072'ean);

2.^a- «ER» izkiz asitakoak: HEREINZGUHIN, eta naiz Donemillan'go larrukian ez, «H»z dakusgu HERCE (934'ko larruki zarrean), eta HERDOÑANA (1332'ean).

3.^a- «AR» asieran dutenak: HARRAHIA, HAREZABALLETA, HARAHAHIN, HARHAZU, HARRIETA, HARRIOLA, HARRILUCEA, HARRIOLHA, HARRIZABALLAGA; eta dokumentu zaarragoan, 759'garren urtean, HARRIA, HARRIAGA, HARRILUCEA.

Ez da Mitxelena, ikusi dezakezuenetz, arazoirik gabe arritu. Baiña arritzekoa al da itz berdiñetan batzuetan «H» erabiltzea eta besteetan ez?

Ez, orduan, lumalari aiek «H»az, eta beste izki guztiez eta ortografi osoaz, nai zituzten naikeritxu guztiak egiten zituztela gogora ekartzen ba'dugu.

Orain aztertzen ari geran XI Albontza'ren larruki ontan ere lau dira «AR»ez asten diran itzak batere «H»rik gabe idatziak; Larrukian agertzen diran guztiak: ARCAUTE, ARGANDIÑA, ARMENTIA, ARROYABE.

Mitxelena'ri egin diogun aipu au bukatzeko esan dezagun berak aipatzen duan MEIANA ori, MEIANO dala larrukian; eta santu baten izena lez datorrela an, -naiz erriaren izena santuarena izan-: «SANCTI MEIANO».

MONASTERIOGUREN. Beste batean esan nuala uste dut, geienetan beintzat, Euskalerriko larruki zarretan aipatzen diran «monasterio» aiek egiazko «monasterium» edo lakaide-txeak ez zirala. Irakurri dezagun gaur Lopez-Mendizabal'ek gai ontaz zer dion: «Llamábase así (monasterios) en la Edad Media a las ermitas cristianas en el País Vasco (del latín o del griego) en especial en B. (Vizcaia) y N. (Navarra)». Egia: baiña ez osoa. Geienetan ala zan. Baiña ez beti. Batzuetan «monasterium» itzak benetako eliza, parrokia, adierazi bait nai du; eta beste batzuetan egiazko lekaidetxea; Leire adibidez, edo Iratxe, edo Kukulla.

«Monasterium» itzak baselizaren bat adierazi nai duanean, geienetan beintzat, «monasterium» esaten zaien baselitza aiek padar edo zaindari bat izan oi zuten, eta batzuetan lurren jabe ere izaten ziran.

Luzeegi dijoakigu, bear badá, gaurko ikerketa-lan astun aue-ta, besterik gabe, ontan moztu bearko dugu gure jarduketaren aria. Jainkoa lagun, beste egun batean jarraituko dugu.

Latiegi'tar Bixente